

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 744/2016 Erabakia, azaroaren 15ekoa, Borja Rodriguez Ramajo jauna behin-behineko langile izendatzen duena, aholkularitza bereziko eginkizunetarako

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Arabako Foru Aldundiko eta haren foru erakunde autonomo eta sozietate publikoetako goi kargudunen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen erregimena arautzen duen otsailaren 21eko 4/2000 Foru Arauak 2. hurrengo artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo eskumena duen diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko aholkulari berezi lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Diputatuen Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo. Borja Rodriguez Ramajo jauna izendatzea behin-behineko aholkulari bereziek betetzekoa den aholkulari teknikoaren lanposturako (kode zenbakia: 1122.004).

Bigarren. Erabaki honek 2016ko azaroaren 16tik aurrera izango du indarra.

Hirugarren. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE